



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko urtarrila · 335. alea

TOKIKOM



# SOLOGOEN Energia garbia herrirako



## AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Zuberoa Jauregi Larrañaga
- 6 Begira** Euria, euria eta euria
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 Argazki bidez** Urtarrileko argazkiak
- 14 Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 18 Erreportajea** Sologoeneko zentrala
- 22 Kirola** Ander de Luis
- 24 Kultura** Aratosteak
- 25 Gure artistak** Kilikilima
- 26 Nondik nora** Javier Gonzalez
- 28 Sakonean** Xabier Zabala
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Jokin Oregi *Maileguan lagatako begiak*
- 16 Gutunak** Eñaut Unamuno / Nerea Orbea
- 16 Hausnarketa** Zela ikusten duzu pentsioen egoera?
- 17 Zir(r)ika** Inbertsiñua
- 17 Puntua** Nerea Isasti *Atzera, aurrera egiteko*



## Pil-pilean herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkartea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Telefonia

943 75 13 04  
**Erredakzioa** Ubane Madera  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Azala** Fernan Oregi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea

### Inprimategia

Gertu Koop.  
**Banaketa** Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:** SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Maileguan lagatako begiak



Jokin  
Oregi

**“Eider  
Rodriguezen  
Bihotz handiegia  
ipuin-liburuari  
interesgarria  
bezain aberatsa  
iritzi diot”**

Barkatuko didazue atrebentzia, herrikideok, baina gomendio bat egitera natorkizue. Orain gutxi Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* ipuin-liburua irakurri dut, eta interesgarria bezain aberatsa iritzi diot. Egunerokoa, ustez epika gutxiko eremuetan, trebetasun handiz murgiltzen da idazlea eta gu guztiontzako harribitxi ugari ekartzen dizkigu. Ez al da hori “artista” bati eskatu dakiokoeena? Sarri irudikatu izan dut artista urre bila ibiltzen zirenen antzera, nolabaiteko galbahea eskutan, errealtatean ezkututzen diren urre-koxkorrak azaleratuz, guztion begi-bistan utziz: jakituriaren

altxorra, mundu zoro, krudel, eder eta konplexu honetan duintasun amini batez bizitzeko “metal” preziatua.

Begirada zorrotza du Rodriguezek, bizitzari so egiteko molde berezia eta, batez ere, bizitzari “so” esateko gaitasuna, une batez gera dadin kieto eta azter dezagun, arretaz, presarik gabe, ñabardurei erreparatzeko denbora nahikoaz. Bere begiak uzten dizkigu, haiekin orain arte susmopean genuena argi ikusteko, pertsiana jaso eta ilunetan zeuden

altzarien eta haietan eserita dauden gizakien presentziaz jabetzeko. Izan ere, hor daude pertsonak, besteak, askotan ez ikusiarena egiten badugu ere. Ze zaila egiten zaigun besteei gutxieneko patxadaz begiratzea, haien berri jakin nahi izatea. Badugu hurkoa mamu bihurtzeko berezko joera bat, onenean beldurgarri, txarreanean ikusezin.

Zaintzaz ari da idazlea, zahartzaroaz, maitasun agortuez, bizirik sentitzeko egiten ditugunez, norberaren miseriez, kostatako elkartasunaz, elkartasun eder horretaz; ezeri gorazarerik egiteke, heroien epikatik aldentuta, prekarietatean duin, aldarrikapenean sendo. Bai, badago hautu ideologiko bat, begirada zorrotza norbera ere zorrotz aztertzeke, konplexutasunak biluzteke, konplexurik gabe. Pertsonaiak hari fin baten gainean dabilta, ekintza arruntenak egiten ikusten baditugu ere, idazleak uneoro gogorarazten digu azpian ez dagoela sarerik. Hortxe dago idazlea, hotxe gu hark maileguan emandako begiekin, bizitzako hondakinen artean loratzen, usteltzen, berpizten eta berhiltzen diren Ixabel, Maialen, Iñaki, Claudia, Clemente, Sara, Jone edo eta Urkori begira. Hurkoari begira.

Liburua irakurri berritan, Margot eta ezkontza (Margot at the Wedding) filma ikustea egokitu zitzaidan. Noah Baumbachek idatzi eta zuzendutako filma da. Eta pentsatu nuen zeinen ikusmolde beretsukoak izan zitezkeen liburua eta filma. Baina...barkatuko didazue atrebentzia, gaurkoz gomendio bakarrarekin nahikoa, ala?



# Zuberoa Jauregi Larrañaga

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Zuberoa Jauregi ingurumen teknikaria da Vermican enpresan. Abenduan, herrian izan zen hondakin-bilketa sistemaren gaineko informazioa ematen. Aholkularitza eskaintzen dio Debabarreneko Mankomunitateari.

## **Europak eskatuta aldatu dugu hondakinak batzeko sistema, ezta?**

Bai. Ikusita hondakinak ingurumen arazo larria direla, 2008tik aurrera araudi batzuk ezarri ziren helburu jakinak markatzen zituztenak. Araudi horiek ari dira garatzen, eta 2016an ekonomia zirkularreko paketea atera zuten. Pakete horretan zehaztu zituzten helburu eta epe konkretu batzuk: 2020rako %50eko birziklapentasa izatea eta 2030erako %70ekoa. Eta helburu horiek lortzeko hainbat plangintza eta sistema garatzen joan dira. Horren harira Debabarreneko Mankomunitatean erabaki dena zera da, Gipuzkoako mankomunitate askotan moduan, txartelekín irekitzen diren txip bidezko edukiontziak jartzea: errefusarenak eta organikoarenak.

## **Zein da Soraluzearen abiapuntua?**

%36 pasa birziklatzen da Soraluzen. Tasa txikia da. Debabarreneko gainerako udalerrietako tasen artean Soraluzekoa baxuenetakoa da., baita Gipuzkoako bestelako mankomunitate batzuen artean ere.

## **Aldaketa beharra legetik harago doa, ala?**

Bai. Legeak ere eskatzen du aldaketa, azken baten ingurumen arazoa delako. Gure planetak baliabide mugatuak ditu eta ezin dugu etengabe baliabide horiek kontsumitzen eta hondakinak sortze aritu. Herritarrek kontzientziaztea ere helburu izan beharko litzateke.

## **Soraluzeko batzarrean esan zenuen kutsaduraren arazo nagusietako bat hondakinak direla.**

Bai. Hondakinen kudeaketak eragin handia du: zabortegira botatzen baditugu espazioa behar dugu, lixibatuak sortzen dira eta lurrazpia eta lurrazpiko urak kutsatu egiten ditugu, gasak isurtze ditugu atmosferara, are gehiago erraustegietan; inpaktu bisuala du, usainak... eta kontuan hartu behar dugu hondakinen kudeaketak udalen aurrekontu oso potoloa hartzen duela.

## **Horrela ikusita, ez litzateke derrigortu beharko?**

Hondakinen gaien Gipuzkoan egon den katamillarekin ibili da esaera bat: *hau ezin da inposatu*. Orain ere, akaso, askok txartela jasotzean pentsa dezake hori; baina inork ez du kutsatzeko eskubiderik. Hortaz, herritar moduan, erantzukizuna konpartitua da. Eta horrela da, gainera, arazo larria delako, ez norbaiti sudurraren puntan jarri zaiolako. Hortaz, birziklapen-tasetan urratsak ematea da

eskatzen den gutxienekoa. Honekin lotuta, mezu bat helarazi nahiko nuke: zure bizilaguna den horrek, akaso, hainbat urte daramatza organikoak bereizten. Zein zara zu gainerakoek lana zapuzteko? Garai batean zaborrak errekarara botatzen genituen, edo erretzen genituen batek daki non. Orain, inork ez du esaten *nik eskubidea dut zaborrak errekarara botatzeko, eta zaborra edukiontzira eraman beharra inposaketa da*. Bilatu behar dugu ahalik eta sistemarik egokiena ahalik eta gehien birziklatzeko, hori guztia herritarrentzat ere ahalik eta erosoena izateko, baina betebeharreko zerbait izan behar da.

## **Erosotasuna aipatuta, batzarrean aipatu zuten edukiontziak ez direla erosoak, altu daude...**

Egia da. Ez dituzte irisgarritasun ezaugarriak betetzen. Oraindik ere garatzeko bide handia duen lerroa da. Beraz, egia da zailtasunak sortzen dituztela eta horiei soluzioa eman beharko zaiela.

## **Bestalde, aipatu zenuen hainbat sistema ezagutu eta gero, ohitura aldatzea dela kontua...**

Gakoa ohitura aldatzean dago, hondakinak hasieratik bereizi behar dira. Azterketek erakutsi dute askoz ere birziklatze-maila altuagoa lortzen dela hondakinak hasieratik bereiziz gero.

## **Bestalde, Europatik, eskatzen da materia organikoa gaika batu behar dela. Zergatik?**

Debabarrenean sortzen diren hondakinen %47 organikoa da. Hori ondo bereiztea lortzen badugu, begira zein gertu egongo ginatkeen Europak ezarritako helburutik. Sistemari dagokionez, batzuek nahiago dute hori eta besteek hura, eztabaida hori badago, baina funtsean eskatzen dena zera da ohiturak aldatzea, eta organikoak bereizten hasteko ohitura hartzea. Ez da besterik. Debagoienean, Beasainen... egin eta lortu dute hori egitea, eta hangoak ez dira Soraluzekoak baino listoagoak edo guapoagoak...

## **Hala ere, tranpa egin daiteke.**

Bai. Baina hondakinek zerbait ona badute da pisatu egin daitezkeela. Eta ikusi egingo da edukiontzi bakoitzean zer dagoen. Eta tranpa egin daiteke, eta errekarara bota ere bai, baina pentsatzen dut pixkanaka aldatzen goazela eta ardura hori hartuko dugula. Gainera, Gipuzkoan hondakinen gaiak sortutako polemikak ekarri zuen hondakinak agenda politikoko gai zentrala izatea; ez luke zertan polemikan oinarritu behar, baina ekarri digu gipuzkoarroi ere hondakinen gaiarekiko ikuspegia, sentsibilizazioa eta kezka, lehen ez genuena.

**“Debarreneko  
gainerako udalerrietako  
tasen artean Soraluzeko  
birziklapen-tasa  
baxuenetakoa da”**

ZUBEROA JAUREGI LARRAÑAGA






# Euria, euria eta euria

ARGAZKIA: FERNAN OREGI  
TESTUA: MIGUEL BORINAGA

Azken hiru hilabeteotan euri asko egin du. Igeldoko behatokiko datuen arabera, abendutik urtarrilaren 26a arte botatako prezipitazio totala (euri eta elur bezala jasoa) dagoeneko neguko hiru hilabeteetan espero dena baino handiagoa izan da. Hortaz, aurtengo negua hezea izango da hemendik martxora bitartean tanta bat gehiago botatzen ez badu ere. Gainera, azaroa ere hezea izan zen izugarri.

Edozein modutan, askotan, euri kopuruak baino, euri egunek erakartzen dute gure arreta. Eta datuak, berriz ere, bat datoz jendeak pertzibitu duenarekin. Iazko urria lehorra izan zen, soilik 9 egunetan egin baizuen euria, bataz bestekoa 12 egunekoa denean. Azaroa hezea izan zen eta 15 egunetan egin zuen euria, bataz bestekoa 13 izanik. Abendua eta urtarrila dira, baina, bataz bestekotik gehien aldentzen direnak: abenduan 22/12 da erlazioa eta oraindik bukatu ez den urtarrilean 24/13, eta iragarpenek diote zenbaki hau handitu egingo dela. Udazken bukaera eta negu hasiera benetan bustiak izan dira.

Datuak: [aemet.es](http://aemet.es) [ogimet.com](http://ogimet.com)







# “Herritar guztiei zabalik dago prozesua”



Prozesua diseinatzen dabilen taldeko kide batzuk Gaztetxean.

Gaztetxea biziberritu nahian dabilta hainbat herritar.

## **Zein litzateke helburua?**

Azken asanblada desegin eta erreleborik ez zegoenez, gunearen etorkizunaz kezkatuta agertu ginen kide batzuk batzen hasi ginen. Helburua, historikoki Gaztetxea izan den horretan, gune aktibo eta bizi bat lortzea da. Prozesu parte hartzaile bat abian jarriko dugu proiektu bat sortzeko asmoz.

## **Eperik baduzue buruan?**

Lehen urratsarekin (*Ufala dator*) otsailean hasiko gara: norbanako zein taldeei zelako gunea irudikatu eta espazio honi zein erabilera emango lioketen galdetzea da. Maiatzean, bigarren urratsa (*Urakapiñak batzen*), aurreko iritzien gainean erabakiak hartu eta gunearen hainbat antolaketa eta egitura aztertuz, egokiena aukeratzeko hasiko gineteke. Eta uda ostean, hirugarren urratsa (*Sutan epeltzen*), proiektua praktikan jartzeko kudeaketa eta bestelako kontuak erabakitzen hastea. Ondoren etorriko da praktikara saltoa. Erabakiak parte hartzaile guztion artean hartuko dira.

## **Zeintzuk zabilzate lanean?**

Kide gehiago hasi baginen ere, gaur egun sei kide ari gara prozesua diseinatzen. Urte askoan asanbladan

ibilitakoak, *Tripafestako* kide batzuk eta 2015-ko *Berrekiten Berriketan* prozesuaren ondoren, erreleboa hartu zuten azken asanbladako kide batzuk. Bide honetan, Joxemi Zumalabeko (herri mugimenduen mesedetan prozesuen diseinu eta dinamizazio lanetan laguntzen aritzen den fundazioa) kideak bidelagun ditugu.

## **Itxita, baina, gaur egun ez dago, ala?**

Ez, nahiz eta egunerokotasunean lokala zabalik ez egon, ezer antolatu nahi duenak aukera izan du eta badu. Ohiko *Tripafestaz* gain, beste ekintza batzuk ere antolatu dira, ardurak antolatzaileek eurek hartuta. Irizkin bat badugu egina horrelako kasuetan erabilera baldintza batzuk betetzeko: Giltzak, garbiketa, gastua, materiala... **Zer egin behar du parte hartu nahi duenak?**

Soraluzeko eragile eta norbanakoengana hurbilduko gara ahoz ahokoan, baina herritar guztiei zabalik dago prozesua. Sare sozial eta herri komunikabidearen bitartez zabalduko ditugu deialdiak, baina edozeinek gurekin harremanetan jarri nahiko balu (prozesuari zein lokalaren erabilpenari dagokionez) gugana etorri dadila edo posta elektronikoko honetara idatzi dezala: [soraluzekogaztetxia@gmail.com](mailto:soraluzekogaztetxia@gmail.com)

## Odol-emaileendako urteko egutegia

Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak sei hitzordu jarri ditu aurten odol ateratzek egiteko. Urtarrilean hasita bi hilean behin, azarora bitarte, barixakuetan izango dira Itzaropena elkartearen, 18:30etik 20:30era. Hilabete honetakoa gaur, urtarrilaren 26an izango da. Gauekoak: martxoaren 23an, maiatzaren 25ean, uztailaren 20an, irailaren 28an eta azaroaren 23an.

## Urteko batzar orokorra, Itzaropena elkartearen

Otsailerako bi deialdi egin dituzte Itzaropena Elkartetik. Batetik, otsailaren 2an, barikua, ospatuko dute San Blas eguna. 17:00etan hasita, kafesnea eta San Blas opilak banatuko dituzte.

## **Batzordea berrituko dute**

Bestetik, urteko batzarra egingo dute otsailaren 13an. 16:30ean da lehen deialdia eta 17:00etan, berriz, bigarrena. Landuko dituzten gaien artean, besteak beste, batzordea berritzeko proposamena izango dute, 2018rako kontuen egoera eta kontuen gorabeherak aztertuko dituzte, batzordearen jakinarazpenen berri ematearekin batera. Batzarra amaitutakoan luntxa izango dute: tortilla, txorizoa, gazta, menbrilloa, ardoa eta ura. Iragarri dute musika ere jarriko dutela.



# Komertzioen gida eguneratua banatuko da otsailean etxe guztietara

Udalak otsailean argitaratuko du Sorluzeko Gida 2018, herriko komertzio, enpresa eta elkarteen berri ematen duen gida eguneratua. Otsailaren erdialdera, ale bana banatuko dute herriko etxe guztietara, sorluzetar guztiak eskura izan dezaten, lehenagoko telefono listinen antzera. Hain zuzen, gidaren helburu nagusia da herritarrek datuok eskuragarri izatea, eta, horrekin batera, herriko jarduera antolatua bisibilizatzea.

## 190 baino gehiago

Duela bi urte argitaratu zen gida, eta, orduan bezala, Pil-pilean komunikabideak izan du datu-basea eguneratzearen ardura. Oraingoan ere, guztira, herrian diharduten 190 entitate baino gehiagoren datuak jaso dituzte gidan.

## Berrikuntzak

Berrikuntzekin dator aurtengo gida; besteak beste, diseinua



Herriko hainbat eragileren ordezkariak, gida eskutan.

berritu dute, erabiltzaileendako bilaketa errazte aldera.

Gainera, merkataritza gida batez haragoko gida prestatu dute; hala, merkataria eta zerbitzu profesionalen gaineko informazioaz gain, artisauen kontaktuak, 2018ko ekimenen egutegia, bestelako erakunde

publikoen eta zerbitzuen intereseko telefonoak, zaintzako farmazien egutegia eta zaborren egutegia ere txertatu dituzte, baita herriko desfibriladoreen kokalekuak ere. Sorluzeko Gida 2018 internetez ere kontsulta daiteke [plaentxia.eus/gida](http://plaentxia.eus/gida) atarian, baita [sorluze.eus](http://sorluze.eus) atarian ere.

# Lucio Ariznabarreta itxita, azarotik

Azaroaren 6an itxi egin zuten Tornilleria Lucio Ariznabarreta lantegia, Sorluzeko mendebaldeko irteeran dagoena.

Itxi zutenean lau behargin zebiltzan bertan lanean eta bi eraikinek osatzen dute enpresa.

## Urtebetean bi lantegi gutxiago

1950ean sortu zuten Irure auzoko torlojugintza fabrika hura; torlojuak, azkoinak, zorroak eta dekoletaje piezak fabrikatzeko; hotzetako estanzazioa ere lantzen zuten; oro har, automozio, makina-erreminta, eskuzko-erremintak, altzairugintza, nekazaritza eta meatzaritza lantzen zituzten bezeroendako lan egiten zuten.



Sasoirik onenean 15 behargin inguru izatera iritsi zen.

Urtebeteko epean Sorluzen itxi duten bigarren lantegia da *Tornilleria*

*Lucio Ariznabarreta*; langile kopuruarengatik konparatzerik ez dago, justu iazko abenduan itxi baitzuten Pascual Churruka.

# Bizilagun gehiago herrian

Urtarrilaren 24an eskuratutako datuen arabera, 3.919 herritar daude Sorraluzen erroldatuta. Iazko erroldarekin alderatuta, gora egin du bada, udalerriko bizilagun kopuruak, ze iaz 3.890 lagun zeuden Sorraluzen erroldatuta. Hortaz, aurten 29 herritar gehiago daude.

## Gazte gehiago

Sexuen arabera, emakumeak baino gizon bat gehiago dago herrian: gizona 1.960 dira eta emakumezkoak 1.959. Eta horien

artean, gazteak dira nagusiak baino gehiago: 18 urtetik beherako 652 gazte daude eta 80 urtetik gorako 322 herritar.

Jaiotzei begiratuta, 26 ume jaioberri erroldatu dira, 2017ko abenduaren 31ra bitartean: 12 neska eta 14 mutiko. Hildakoak, berriz, 44 bizilagun izan dira. Kasu horretan, beraz, eta joera orokorrarekin bat eginez, jaio direnak baino gehiago izan dira hil direnak. Sorraluzek errolda positiboa izatea, bada, jendearen etorrerari zor zaio.

# Plastikozko poltsak kobratzen hasi dira



Bizikaleko hainbat kide urtarrilaren 22an Elkartegian egindako batzarrean.

Urtarrilaren 25ean plastikozko poltsak kobratzen hasi dira Bizikale elkarteko saltokiak, hain zuzen ere, elikagaiak saltzen dituztenak hasiko dira horretan. Ezaugarri horietako 12 bat izango dira, guztira. Eta poltsa bakoitzeko 5 zentimo kobratzen hasi dira.

## Kontzientziazioa

“Helburua da herritarren artean plastikozko poltsen erabilera murriztea. Urteak daramatzagu plastikozko poltsak ez erabiltzeko

ahaleginak eginez; badira telazko poltsak eman edo oparitu izan dituztenak (baita aurtengo Gabonetan ere), herritarrek plastikozko poltsak erabili ez dituzten; baina askok erabiltzen jarraitzen dute. Hala, bide horretan, uste dugu plastikozko poltsak gutxiago erabiliko direla kobratuz gero”; horrela erabaki zuten Bizikale elkarteko ordezkariak urtarrilaren 22an egindako batzarrean eta horrelaxe dihardute, bada, urtarrilaren 25az gozotik.

# San Blas opilik onenak sarituko dituzte



XI. aldiz, San Blas opil lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak. Egunarekin bat eginez, otsailaren 3an izango da, 12:00etan Plaza Berrian. Teknika, zaporea eta aurkezpena aintzat hartuta, hiru opilik onenak sarituko ditu epaimahaia. Opilek etxean egindakoak izan behar dute, eta egunean bertan eramanez behar dira Plaza Berrira, lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenago.

## 15 minutu lehenago

Hain justu, lehiaketarako izena orduantxe eman daiteke, lehiaketa baino 15 minutu lehenago, alegia. Edo alde zuzenetik udaletxera joanda bertan ere eman daiteke izena.

Edozeinek parte har dezake ekimenean; hori bai, 16 urtez azpikoek heldu baten laguntzaz aurkeztu beharko dute.

## Hiru sari

Epaimahaia hiru sari emango ditu: lehena, 50 eurokoa; bigarrena, 30 eurokoa eta hirugarrena, 20 eurokoa.

Orain dela 10 urte hasi zen Udala San Blas opilen lehiaketa antolatzen, bi helbururekin: herriko opilik onenak saritzeko eta San Blas egunean opilak egiteko ohitura galdu ez dadin.

Iaz Geine Rosagela Dos Santos Barbosak irabazi zuen lehiaketa (argazkian). Bigarren Maite Zabala izan zen eta hirugarren Maialen Larrañaga.



# Rosa Burgoa: “Geuk erosten dugu geure arraina, Ondarroan”



Ainhoa Peña eta Rosa Burgoa Kooperatibako arrandegian.

Joan den asteaz geroztik zabalik da Kooperatibako arrandegia, bigarrena herrian. Rosa Burgoa ondarrutarrak gidatzen du, jardun horretan eskarmentu handia duen emakumeak. Arraindunen familiakoa da, Eibarko azokan arrandegia izandakoa eta gaur egun Elgoibarren arraindegia duena. Berarekin batera, Ainhoa eta Sandra langileek jardungo dute mostradore atzean.

## Zelakoa izan da lehen astea?

Suabe-suabe. Lehen harremana izan da.

## Zela iritsi zara Soraluzera?

Eurak (Koopeatibakoak) nire anaia Guillermo Burgoarekin ipini ziren harremanetan eta komentatu zioten ea nahiko zukeen proba egin. Eta hementxe gaude!

## Arraindunen familiako hirugarren belaunaldia zara...

Aitaren ama izan zen lehena, gero nire gurasoak eta orain neu. Errodajea behintzat badugu.

## Zek jardungo duzu hemen lanean?

Ez. Goizeko lehen orduan etortzen naiz eta martxan jarri; eta gero nabil

hemen eta Elgoibar artean, eta hemen ibiliko dira Sandra eta Ainhoa.

## Generoa nondik ekartzen duzue?

Ondarroatik, beti; Getariako, Galizako, Frantziako kostako... arraina ere erabiltzen dugu. Iparraldeko esparru guztikoa. Amak beti esan izan dit gauza bera: beti kalitatea aurretik. Manipulatu ere ondo egiten dugu. Eta gustatu egiten zaigu. Geure arraina guk erosten dugu, inork ez digu erosten, guk apartatzen dugu, guk erabakitzen dugu zein hartu zein ez... dena guk egiten dugu.

Itsasoaren, portuaren eta neure artean ez dago beste inor, zuzenean egiten dugu dena. Eta gainera asko gustatzen zait arraina erostea, saltzea ere gustatzen zait, baina erostea piloa. Eta jendearekin tratatzea ere bai. Nahiko alai naiz, eta jendearekin tratatzea asko gustatzen zait. Horretan aitaren alaba naiz.

## Zerbait gehiago esan nahi baduzu?

Hemen gaudela zain, jendea etortzeko, ezagutu gaitzaten gu. Prest gaude aurrera egiteko.

## Mintzalagunak dokumentala antzokian

Mintzalagunak protagonista dituen erreportaje berezia da *Mintzalagunak*. Sare bat inguruan, bidelagunak alboan izeneko dokumentala. Ordu erdi inguruko ikus-entzunezkoa da eta, bertan kontatzen da, Mintzalagunek egunerokoan zer egiten duten eta horrek parte hartzaileei hitzun moduan zer suposatzen dien jasotzen da.

Dokumentala otsailaren 22an, eguenean, proiektatuko da antzokian Soraluzeko Berbalagun egitasmoak antolatuta. Gaur egun, herrian 25 lagun baino gehiagok dihardute Berbalagun taldeetan, astean ordubetz euskara praktikatzen.

## Lortu dute helburua

“Oso oso eskertuta” dago Soraluzeko Mísio Taldea aurtengo panpinen tonbolarekin lortutako emaitzarekin. “Helburua lortu dugu: 6.600 euro bideratuko ditugu Dominikar Errepublikara, hango Santo Domingoko Karitatezko Mesedeetako kongregazioaren bitartez La Lima izeneko zerbitzu medikuko laborategirako. Dirua bidaliko dugu Zumarragako Mesedeetako Ahizpen bitartez, berau da-eta Mesedeetako kongregazioaren egoitza nagusia. Izan ere, orain lagunduko dugun proiektua Maria Luisa Makinaik, Soraluzeko ahizpak, aurkeztu eta koordinatu du”, esplikatu dute Mísio Taldeak.



## Otsailean inauguratuko dute

Bukatzeaz daude Estaziñoan eraikitzen dabilen parkeko lanak; azken erremateak eta xehetasunak ipintzen dabilta egunotan, parkeak dituen elementu-jostailu nagusiak ipinita daude-eta: txirrista zabal bat, hiru tipi eta zirkuitua osatzeko hiru tuneltxo ditu, besteak beste. Baita hiru jarleku berri ere. Behin azken lanak bukatuta, otsailean inauguratuko dute eta umeek jolasteko gertu utziko dute.

## Pentsiodunak haserre eta kezkatua

Bi elkarretaratze egin dituzte herriko pentsiodunek urte hasieratik. Pentsioetan aurten izango duten %0,25eko igoera txikiarengatik protesta egiteko elkartu dira Plaza Berrian. Salatu nahi dute, besteak beste, pentsioen igoera Kontsumoko Prezioen Igoera baino dezente txikiago dela, eta horrek dakar pentsiodunak geroago eta pobreako izatea. Politikarien ustelkeria ere salatu dute, azpimarratuz pentsioen kutxatik dirua atera eta atera dabilzala.



## Autobus ordutegiekiko gaizki-egona

Autobus ordutegian ezarritako aldaketek hainbat erabiltzaileen gaizki-egona eragin dute. Herritar batek kontatu du 06:30eko autobusa kendu izanak 07:00etan Eibarko lantokira garaiz ailegatzea eragotzi egiten diola. Beste batzuk, berriz, eskolara garaiz iristeko zailtasunak dituzte. Izan ere, 08:00etarako ailegatzeko, 07:15eko autobusa hartu beharra izaten dute eta ordu erdi lehenago iritsi, edo 07:45ekoa hartu eta ordua baino beranduago iritsi.





## Bi tantorengatik galdu zuten finala

Partidua majo borrokatu arren, 22-20 galdu zuten Aitor Atxotegi (Soraluze) eta Jon Olaizola (Lesaka) bikoteak Elgoibarko San Antonetako XXVII. Pilota Txapelketako finala, Alberdi eta Aizpurua bikotearen kontra. 20na berdintzea lortu zuten, baina gaizki-uleru batek eragin zuen partidua galtzea. Edozelan ere, Atxotegik gogotik eskertu du Elgoibarko harmailetara soraluzetar mordo gerturatu izana.

## Kulturartekotasuna txalapartaren bitartez

Abenduan txalaparta tailerra egin zuen Auzoko egitasmoak. Mikel Ostolaza txalapartariarekin ezagutu zuten euskal musika tresna hori. Auzokoren helburua da herritarrei euskarara eta euskal kulturara hurreratzeko aukera ematea. Martitzenetan batzen den taldeaz gain, HHI-ko (Helduen Hezkuntza Iraunkorreko) 1. eta 2.mailako ikasleekin ere jarduten dute. Parte hartzeko: ([maialen@pilpilean.eus](mailto:maialen@pilpilean.eus) edo 943 75 13 04 zenbakira deitu).



## Danborrada

San Sebastian egunaren bezperan irudikatu zuten danborrada Plaentxi Herri Eskolan. Eurek margotutako txapela buruan eta bibote beltza musuan zituztela, Marraz txikiaren bueltan mailaka kokatu eta musikaren erritmoari eta irakasleen esanari arretaz kasu eginez danborrak astindu eta aireratu zituzten Sarriegiren doinuak eskolako txikienek. Guraso mordo inguratu zitzairen patioaren bueltan; baita ere Lehen Hezkuntzatik gorako ikasle mordoska ere.

## ITZALA

Zein da txori-lagarrri  
honen irudi izena?



Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

Soluzioak:

plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak



## AMAIUR, 1512

Oso espaldi iragandako gertaera dela gogoa hartuta, badirio gutxienez sei  
elementu inuti honetan aurkitu behariko ez gaituzkizanak,  
gehienak artean ezaratu gabesak zirelako. Zeintzuk dira?

## Zein da bidea?

Legundu barginari bere gastelura heltzen. Laukitz lauki egin behar du bidea,  
baina lore, frutu eta hastetarik pasatu gabe. Mugitu ezkerrean, eskuinera,  
gora edo behera baina sekula ez diagonalean.



## Ekatza



Ordina itxur papereko  
itxazontziak  
hondak bakira

## asmatu

Etan al dakizu zer dioten emakolak?

• Iner ez da ...

- 1 ... bai-baietan bainara biltzen.
- 2 ... nerberaren haurra beaia edon.
- 3 ... anaren bukarren aspertzen.
- 4 ... itxazoi jaitzen.
- 5 ... anarekin harretzen.
- 6 ... arhatetik matamotika aile.
- 7 ... ando jan gabe inera heltzen.
- 8 ... ametatik egin gabe bai.



Etan zer dio beste honak?

• Bolea eman ...

- 1 ... eta Moby Dick agertu.
- 2 ... eta belea izan.
- 3 ... eta anari eterrri aiti  
hogan.
- 4 ... eta anati bakoa eman.
- 5 ... gurria izan eta  
lagunak antzeman.
- 6 ... eta andara ein etan.
- 7 ... eta arhatelara eman.



# MARRAZTU

Zer eta diramete inurri hauek?



## IZOTZETAN

peluzarik eta Maripuztzilek izotzetan patinatuz nahiko lukete. Aurkituharian eta isplaitutako irudiaren artean dauden zazpi ezberdintasunak.

## DOMINO ZATIA

Erte izuru fibretako espazio urriak, deritxo utzi hau osatu lan dade.


## SUDOKU KOLORET SUA

Deritxo hau ingul osatu. Kolore egokien murgatu behar da ibur bibr urriak. Gogoratu kolore beldutan behin beharrik eger deritxoko eritibe beldutako, lerro beldutako eta uti beldik osatu eritibe are beldutako.

Hauetk diru osatutak:



●	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○
○	○	○	○	○	○	○



Erretiratu hauetk eritibe diruon ingul hauetk deritk. Hauetk deritk lan alre beldutk. Begira lau deritibe eritibe diru 25 urte egintako osatutak. Er al deritibe eritibe deritibe?



## Mendiola industrialdeko kaka-pilak

Nik dakidala, Mendiola industrialdea Sorraluzeko udalerrriaren parte da eta, beraz, udaletxearen ardura da bertan arauak ezartzea eta garbiketak bideratzea.

Ez dakit zer pasatzen den, baina itxura denez orain txakur gehiago ibiltzen da industrialdean eta jabeek ez dituzte jasotzen zakurrok egiten dituzten kaka-pilak. Sare sozialetan eta Plaentxia.eus webgunearen bitartez zabaldutako argazkietan erakusten zen moduan, kaka-pilak tailerraren aurrean egin eta bertan lagatzen dituzte inolako lotsarik barik. Azkenean geuk batu behar izaten ditugu (lantegiko langileok), gero ez zapaltzeko eta lantegiaren itxura ona mantentzearren.

Zer pasako litzateke gure bezero edo bisitariak bere autotik irten eta kaka mokordoa zapalduko balu? A ze fama hartuko genukeen. Lehen inpresioa behintzat ez litzateke ederra izango.

Hori geure industrialdean pasatzen da eta ardura ez da zakur jabeena bakarrik, udaletxeak ere

badu bere ardura, industrialdea udalerriko parte da eta.

Hau da paradoxa hau, zakurrik ez eta zakurren kaka batzen ibili behar...

**Eñaut Unamuno Loiti**

## Visit Baltegieta.eus

Bertako turismoa sustatu eta bultzatzeko asmoz, herrian bertan, zuloaren zuloa ikusteko aukera paregabea duzu. Visit Baltegieta.eus-ek tourrak eta ibilbideak:

**Abentura:** Zeharkatu ezazu Gabolatseko zubia auto batekin batera. Emozioa eta zirrara biziko dituzu behin eta berriz.

**Kirola:** Adoking trekkinga praktikatu; mendira igo gabe, koskak eta irregulartasunak ezker-eskuin, pauso bakoitzean sentitu.

**Natura:** "Berdin" errekatxoaren iturburua behatu, urte osoan dago aktibo; berdin dio lehorte edo ur eskasiak; berdin-berdin isurtzen da horma zein eskaileretatik. Gainera, berdea da!

**Kultura:** Ondare historiko industrialia eta armagintzaren gainbehera bertatik bertara ikusteko aukera paregabea. Kaskoa jantzita, egin ezazu SAPAn zehar Frankok egin zuen ibilbidea.

**Artea:** Kolorearen presentziak inguruarengan duen eragina apreziatu ahal izango duzu Iturriko graffiti eta zabor plastikoekin.

Jan eta lo: Refugioan, isiltasun eta iluntasun sakonenean, goza ezazu meditazioa eta pakea sentituz; gainera, bertako jatetxean, J. Aperribay cheff famatuak diseinatutako karraskari mutanteekin eginiko menu berezia dastatzeko aukera ere, badaukazu.

**Nola iritsi:** Kotxez bazatoz, aparkamendua bertan. (Hosto pila azpian, marrak daude). Autobusez, geltokia bertan. (Aurrez ondo informatu geldituko den edo ez).

**Sarrerak:** Embalajes Ansolako bulegotan doan jaso eta erakusketa iraukorra ikusi, bide batez.

Animatu eta zatoz familia edo lagunekin, denak ekar itzazu!

\*Oharra: Ezgaitasunik baduzu edo zaharra bazara hobe etxean gelditza. Adin txikikoak beraien tutoreen ardurapean egongo dira. Visit Baltegieta, ez da ondorioez arduratuko.

**Nerea Orbea**

[aldizkaria@pildilean.eus](mailto:aldizkaria@pildilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

## Zela ikusten duzu pentsioen igoera?

Aurten Espainiako estatuak %0,25 handituko ditu pentsioak. Beraz, batez beste, hilean 2,5 euroko igoera izango dute. Pentsiodunek protestekin erantzun dute.



**Kristina Arizaga**

Joan zen egunean irakurri genuen Bankiako langileak 56 urterekin erretiratu ahal direla. Beste edozein langileri eskatzen zaio 67 urterekin erretiratzea, eta bada jendea 67 urterekin egoera eskasean dagoena. Ni, adibidez, 63 urterekin erretiratu nintzen; urtebete eskatu nuen ama zaintzeko; eta urte bakoitzeko %8 kendu zidaten. Eta ni bakarrik bizi naiz, baina bada jendea ni baino askoz ere okerrago dagoena.



**Isabel Lopez**

Partidu ustel horrek esaten duena da ez dagoela dirurik pentsioetarako. Kutxan atera eta atera ibili dira eta ez dute bueltatu. Ahaztuta genuen baina berriro atera beharko dugu kalera. Atera dezatela Estatuko aurrekontuetatik edo nahi duten lekutik, baina pentsio duina behar dugu, eta egotea gerta daitekeenaren beldurrez. Partidu hau eta honen aurrekoa, PSOE, biak egon dira gobernuan eta ez dute ezer ere egin.

## Inbertsiñua



Egilea: P.G.



**Iñaki  
Quintanilla**

Normala da jendea haserre eta kezkatuta egotea. Urtero-urtero igotzen digute %0,25, eta Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI), berriz, gehiago igotzen da; aurten, adibidez, %1,6 igo da KPIa. Jendea ez da ailegutzen hilabete bukaerara. Normala da protesta egitea. Horrela jarraituz gero, pentsiodunen artean pobrezia gehiago hedatuko da.



**Ander  
Epelde**

Ez dut egoera batere ondo ikusten. Lapurrez beteta dago nazioa. Eurak bai ederki, poltsikoak ondo beteta dituzte, eta betikoei murrizketak hemendik eta murrizketak handik, gutxien duenari, gainera, okerren dabilenari ematen diote egurra. Protestan jarraituko beharko dugu; bestela eurek lapurretak egin eta egin, eta inork ez du dirurik bueltatzen: hasi Erregearen Etxetik eta agintari guztietaraino... Agintera heltzen dira eta...



**Nerea  
Isasti**

## Atzera, aurrera egiteko

Jarri berri dute errefusa biltzeko ontzi grisa herrian, eta dagoeneko badaude hondakin banaketa gaizki egiten dutenak, nahita ala nahigabe: "zaborrarenatik ordaintzen dugunarekin, gainera banandu egin behar?", "zertarako? gero kamioiak zabor guztia batera biltzeko?"

Jendea ez dago prest. Honekin hasi baino lehen, lan pedagogiko sakona egin beharko litzateke, ez bakarrik mehatxua egin zerga gehiago ordaintzeko. Eta argi dago, informazio bilera dagoenean, joaten direnak dira dakitenak eta ikasi beharra dutenak ez dira joaten.

Dena den, zaborrak banatzea ez da nahikoa. Hasteko, gaizki erosten dugu. Ontziak, plastikoak, kapsulak... Ez da nahikoa zabor banaketa ondo egitea (hau ere ez dugu lortzen); baizik eta, hamarkada batzuk atzera egin eta plastikodun produktuen erosketa gutxitu behar dugu. Balear Uharteetan hasi dute, legearen bitartez, plastikoen aurkako gerra.

Bestalde, egunen batean, 'errefusa' desagertu egingo da. Italian eratu dute pixoihal eta konpresak birziklatzeko 'Fater' enpresa.

Hortaz, egin dezagun atzera aurrera egin ahal izateko!





Soraluzeko udal ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko arduradunekin zentrala bisitatzen.

## ERREPORTAJEA

# Estrategikoa

Sologoengo argindar-etxearen aldeko apustu garbia egin du Soraluzeko Udalak. Soraluzerendako eta, ondorioz, soraluzetarrendako azpiegitura estrategikoa dela argi du. Hori horrela, argindar-etxearen errentagarritasuna handitzeko 60.000 euroko inbertsioak aurreikusi ditu 2018ko udal-aurrekontuan; horrekin batera, zentral hidroelektrikoaren mesedetan, laguntzak eskuratzeko ahaleginean dihardu Udal Gobernuak.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI, DAVID VICENTE, SORALUZECO UDALA ETA GOIENA TESTUA: UBANE MADERA

Horren erakusle da urtarrilaren 15ean, astelehenean, Gipuzkoako Diputazioko Ingurumen Saileko ordezkariekin egindako bilkura, Iker Aldazabal alkateak gonbidatuta etorri ziren, bi erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko helburuarekin.

Hain zuzen ere, Sologoengo azpiegituraren gaineko ezagugarriak ezagutzeaz batera, Irure auzoan dagoen argindar-etxea ere bisitatu zuten Jose Inazio Asensio Ingurumen diputatuak, Obra hidraulikoetako zuzendari Felix Asensio eta Ingurumeneko zuzendari Monika

Pedreirak. Asensio diputatuak azpimarratu zituen Soraluzeko zentral hidroelektrikoak dituen aukerak eta onurak, energia berriztagarria sortzen duelako inolako gasik isuri gabe eta Soraluzeko energia beharraren zati handi bat asetzeko gauza delako.

Ildo horretan, Ingurumen diputatuari eredugarri iruditu zitzaion horrelako azpiegitura bat urtez urte ondo zaindu eta funtzionatzen mantendu izana, eta jakinarazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza zela bideratu aztertuko dutela.

Soraluzeko Udal Gobernuak eta Diputazioak ezeze, Soraluzeko Udalean oposizioan dagoen EH Bildu koalizioak ere Sologoengo zentralaren garrantzia nabarmendu du. Hala egin zuen abenduko osoko bilkuran, 2018ko aurrekontuen harira. Unai Larreategi oposizoko bozeramaileak zentralaren garrantzia estrategikoa azpimarratuta, Udal Gobernuak berak iragarritakoa baino inbertsio handiagoa egiteko beharra adierazi zuen, bikoitza, gutxi gorabehera, azpiegituraren errentagarritasuna handitzeko helburuarekin.

Ikusten denez, bada, ordezkari politiko guztiak bat datoz Soraluzeko argindar-etxeak duen garrantzia aitortzean. Gainera, Sologoen garrantzitsua dela datuek ere baieztatzen dute; izan ere, zentralak, urtero, batz bestea, 815.000 kwh ekoizten ditu.

Konparazioa egite aldera, kaleko argiterian gehi udal eraikinetan - udaletxean, Itxaropena elkarte, EPAko lokaletan, Elkartegian, Ezoziko futbol zelaian, Plaentxia Herri Ikastetxean... (kiroldegian igerilekua gasarekin berotzen da, hori bai)- 559.571 kwhko kontsumoa izan

zen 2017an. Beraz, gaur gaurkoz, Sologoengo zentralak produzitzen duenarekin herriak behar duen argindar lortuko litzateke, eta ,gainera, diru-etekina atera.

Hori gutxi balitz, kontuan hartu behar da, gaur egun, Sologoengo zentralaren errendimendua %50ekoa dela. Gauzak horrela, zentralaren funtzionamendua eta errentagarritasuna optimizatzeko inbertsioak eginda, argi dago, etorkizun oparoa duela Soraluzeko argindar etxeak, eta etekin handia atera ahal zaiola, herritarren mesedetan. "Inbertitu egin behar da bai ala bai", dio tinko Aldazabal alkateak, "Sologoengo zentralari txispak atera behar dizkiogu".

**Argindar-etxeari buruzko datu esanguratsu batzuk:** 1989an Soraluzeko argindar-etxea elkarte eratu zen, Central Hidroelectrica Sologoen SA izenarekin; Soraluzeko Udalaren (Luis Felipe Galarraga alkate zela) eta Eusko Jaurlaritzaren artean eratu zuten elkarte, Euskal Energiaren Erakundea ordezkari zela. Behin eratuta, eta, bi urtez obretan ibili ondoren, 1991n baimendu zuen Gipuzkoako Industria Deleagaritzak

### Azpiegitura eta ezaugarriak


#### Osintxuko presa

- Ura Deba ibaitik, Osintxuko presatik, hartzen da.
- Udalak ur aprobetxamendurako emakida aitortua du 75 urterako, 2061. urtera arte.
- Urak agentziak baimena ematen du Deba ibaitik 5.000 litro segunduko hartzeko.



#### Sologoengo zentrala

- Zentralera sartzeko urak presa bat zeharkatzen du, enborrak, hostoak eta beste kanpoan gera daitezten.
- 9 metroko saltoa eginez heltzen da ura turbinara: Kaplan izeneko ardatz bertikaleko eta erregulazio bikoitzeko Kossler Iberica S.A.
- 425 kwko alternadorea dago barruan.
- Behin ura turbinatuta, Deba ibaira isurtzen da, erreka pareteko hustubidetik.
- Zentralak berak 145 m2 ditu plantan.



zentrala martxan ipintzea, eta baita bertan ekoiztutako argindarra Iberdueroren tentsio altuko sarera konektatzea ere.

2013an Eusko Jaurlearitzak EAEko sektore publikoa arrazionalizatzeko eta berrantolatzeke estrategiaren barruan, beste neurri batzuen artean, Sologoengo sozietatearen likidazioa aurreikusi zuen. Udalak lehen pausoa 2016ko maiatzaren 4an izandako osoko bilkuran eman zuen, eta aho batez onartu zuen sozietatearen likidazioa. Hortaz, 2016ko abenduaren 16an sozietatearen eskritura ofizial egin ziren. Udalak 2017an bideragarritasun txostena eskatu zuen, ikusteko etorkizunari begira ze neurri hartu behar ziren zentral hori bideragarri eta errentagarri izateko. Horri guztiari dagokionez, alkateak zera adierazi du: “Txostenak esaten duena da hau errentagarri eta bideragarri izateko inbertsio batzuk egin behar direla; adibidez, tunelen sekzioa handitzeko eta kanalak garbitzeko. Kanpoko aholkularitza batek aholkatuko digu zeintzuk diren aurreikusi behar diren inbertsiorik garrantzitsuenak. Horretarako ditugu 60.000 euro aurten gastatzeko. Helburua da saltzen duguna berriro



### Jose Inazio Asensio Ingurumen diputatua

#### Ze potentzialitate ikusten diozu Sologoengo zentralari?

Oso interesgarria da ikustea halako zentral bat, energia berriztagarriekin dabilena.

Bereziki, azpiegiturak eginda daudelako eta funtzionatzen dutelako.

Hemen bakarrik ura erabiltzen dugu, ez dago inolako emisiorik. Eta ikusten da Soroluzeko Udalaren eraikinetan eta kaleko argiterian erabiltzen den energia guztia hemendik atera daitekeela. Soroluzeko Udalarekin elkarlana egingo dugu. Gaur izan da lehen



Kaplan motako turbina, ardatz bertikalekoa.

ere inbertitzea, errentagarritasuna hobetzeko. Proiektu hori estrategikoa da Soroluzerendako. Beraz, apustu estrategikoa egiten dugu zentrala martxan jartzeko, meioratzeko, eta uste dut energia berriztagarrien aldeko apustu garbia dela. Bere garaian izan zirelako, orain, gara edo daukagu zentrala, eta, orain garelako izango dira, etorkizunean ere”.

### “Hemen bakarrik ura erabiltzen dugu, ez dago inolako emisiorik”

bisita: ezagutzeko Udalaren eskutik nola dauden gauzak, zein den egoera, zelako ikerketak-eta estudioak egin dituzten... eta hori ezagutu ondoren ikusiko dugu nola bideratu gure laguntza. Hemendik hilabete pare batera edo berriro bilduko gara eta orduantxe ikusiko dugu. Horrez guztiaz gainera, ikusten da azpiegitura hau ondo mantenduta dagoela, eta Soroluzeko Udalak hor bere ahalegina egin duela eta bere dirua ipini; eta alde horretatik horrela jarraitu behar dugu.

### Soroluzeko zentral hidroelektrikoen ibilbidea

Joan den mende hasieran (1915ean) zortzi zentral hidro-elektiko zeuden Soroluzen: Sagarraga-erreak; Osuma-Agirrebeistegi; Sologoengo zentrala; Alberdikoa zentrala; Galarragako zentrala; Olabarrenako zentrala; Mendiolako zentrala eta Maltzagako zentrala.

Zentral guztien artean 400 CV produzitzen zituzten, udalerriko industria elikatzeke bideratzen zirenak.

Sologoengo zentralari dagokionez, 1898rako bazen haren berri; orduan Jose Migel Aranguren Pagoegiri eman zitzaion haren kontzezioa eta hark 1900. urtean Jose Larrañagari eta Santos Gallastegiri saldu zion aprobetxamendu hura. Gerora, Larrañagak eskuratu

zuen jabetza osoa, eta hura hil zenean Higinio Larrañaga y Hermanos sinadura egin zen haren jabe. 1913an, berriz, Antonio Zabala eta Garairen eskuetara iritsi zen zentrala, eta hark 1920an Electra Irurak-Bat enpresari saldu zion; 1934an barau eraldatu eta Zabala, Unzurrunzaga y Cia. izena hartu zuen, harik eta 1965ean Soroluzeko Udalarri saldu zion arte.

1991ean hasi zen atzera ere funtzionatzen Sologoengo zentrala; 1991ko otsailaren 13an inauguratu zuten. 130 milioi pezetako inbertsioa egin zuten, zentrala modernizatzeko. (Informazioa: Ramiro Larrañagaren liburutik).





## “Hiru familia bizi ginen zentrolean”

1950eko hamarkadan hiru etxebizitza zituen Sologoengo zentralak; berau martxan mantentzeko langileak bertan bizi ziren, familiarekin; Mari Karmen Oñate da horietako bat.

Ni Bergaran jaio nintzen, eta urtebetekin-edo etorri nintzen hona. Orain dela 68 urte han bizi izan ginela (1950ean-edo). Gure aitak lehenengo Sagar Errekako zentrolean lan egin zuen. Hura eta Sologoengoa (Electra Irurak Bat zuen izena), biak ziren bat. Eta han bizi ziren Pello Etxeberraren aitaita eta gurasoak-eta. Eta gure aita etorri zen gero beste zentralera bizi izatera. Orduan urik ere ez zegoen etxean. Aska bat zegoen, eta han garbitzen zuten erropak-eta...

**Hiru etxebizitza zituen, baina, zentralak, ezta?**

Bai; alde batean bizi ziren Kortazar-eta (Pasajesen andrea); handian bizi ziren Salazar-eta eta gu beste aldean.

**Zuen aitak bertan egiten zuen lan, beraz? Zein lan?**

Bai. Txandaka egiten zuten lan berak eta Salazarrek: batak egun argiz eta besteak gauez. Makinak zaindu behar izaten zituzten, eta uren sartu-irtetea eskuz egin behar izaten zuten. Eta tximistak sartzen

zirenean korreak apurtzen zituzten, eta...

**Tximistak sartzen ziren? Zergatik?**

Tira egiten zien zentralak berak.

**Arriskutsua izango zen, ba?**

Bai. Ohituta geunden, baina sua piztu izan zitzaigun behin baino gehiagotan. Behin ni sartu nintzen eta nirekin batera tximista, eta makinek su hartu zuten...

**Noiz arte bizi izan zineten han?**

Naiarak bi urte zituenean etorri ginen kalera. Ama-eta bertan geratu ziren, zentrala itxita zegoela. Geroago etorri ziren kalera. 1978an-edo itxi zuten. Ordurako ja ez zebilen. Antza ez zen errentagarria. Eta pertsona bakarra ez zen nahikoa hura zaintzeko. Jende asko pasatu zen bertatik. Kainoi fabrikara ematen zen indarra eta handik ere jende asko etortzen zen erreleboak egitera: Pedro ile-apaintzailearen aita, Agustin Egidazu...

**Orduan ze izen zuen Sologoengo zentralak?**

Unzurrunzaga, Zabala y Garay. Horiek ziren Bergarakoak, Salonazpi inguruko jabe guztiak. Sagar Errekako zentrala ere eurena zen. Alberto Garitanoren aitaita bat ere bizi izan ziren bertan lehenengo. Kanala-eta, berriz, lehenagokoa da. Hura garbitu egiten zuten eta gu arrainak harrapatzen ibiltzen ginen... Gero Udalak hartu zuen. Lehergailua ere ipini zioten...

**Baina zentralari ez, ezta?**

Ez, indarretxean ipini zuten, Guardia Zibilen konboi baten pasadizuan. Leiho gainean ipini zuten pakete bat, 80ko hamarkadan. Eta gero berritu egin behar izan zuten.

Uholde handiak: 1945-1946 inguruan. Marka dago bertan. Orduko uholdeek zubi guztiak gainetik pasatu zituen.



Sologoengo zentrolean hiru etxebizitza zeuden. Argazkia 80ko hamarkadako da.

# “Irailetik honako lasterketa guztietan egin dut podiuma”

## Zazpi urtean, 400 bazkide gehiago



Ander de Luis Urduñako helmurgako zinta apurtzen.

Ander de Luis (Soraluze, 1987) kirolzalea da, “oso”, dio berak. Umetan futbolean egin zituen urte dezente, Soran, UDAn (Aretxabaleta) eta Mondran. Soran 11 urtekoak entrenatzen ditu orain, baina gogoa eta zangoak mendi-lasterketetan ditu.

### Zer da zuretzat korrika egitea?

Zaletasun handia. Iaz zentratu nintzen. Ez bakarrik entrenamenduan, baita denboraldia planifikatzen ere. Lehen askotan ezin izaten nuen parte hartu, futbolarengatik.

### Zenbatero ibiltzen zara?

Astero daude lasterketak. Baina ezin da astero lehiatu. Ni egiten nabil motzak eta horrek aukera ematen dit lasterketa dezente egiteko.

### Hori duzu gustuko?

Gustuko dut lehiatzea. Berdin zait zein lasterketan.

### Emaitzak ez dituzu horrenbeste begiratzen, ala?

Inportanteak dira. Aitortza moduko bat da egindako lanarena. Baina gozatzea da garrantzitsua. Futbolean, adibidez, “gaizto” samarra nintzen: zankadilla ipini behar banuen, ipini egiten nuen. Lasterketan norbait jausten bada, lagundu egiten diozu altxatzen.

Hemen ez dut ikusten kontrariorik, daude korrikalariak.

### Nabarmenak dira zure lorpenak.

Irailetik honako lasterketa guztietan egin dut podiuma: lau irabazi, hiru bigarren eta hiru hirugarren.

### Martxora artekoak erabakita dituzu.

Bai; lasterketa garrantzitsuagoak bete egiten dira eta lehenago eman behar da izena. Adibidez, otsailaren 4an Cartesera (Cantabria) noa, oso gustura. Ze oso-oso inportantea den persona batekin noa: Ramon Agirreekin. Bera gabe ez nukeen hau lortuko.

### Zure coach modukoa da?

Bai. Orain bi urtetik, Ramonen semea entrenatzen nuenetik banaezinak gara. Nik baino askoz gehiago egin du korrika. Ahaleginak egiten ditugu eguaztenoro entrenatzeko: kontaktzen dizkiot lasterketako sentsazioak, esaten dit hurrengo zela planteatu... beti egiten diot kasu; eta begira emaitzak! Nire lorpenak bion lorpenak dira.

### Mendiko lasterketak egiten dituzu, ezta?

Bai. Bueno, aurten egingo ditut Soraluzeko lasterketa guztiak; ez naiz joango kanpora, hemen izanda. Hori argi daukat.

939 bazkiderekin bukatu zuen urtea Soraluzeko kiroldegia. Kopuru historikoa da, sekula izan duen handiena. Hain justu, zazpi urteotan ia 400 bazkide gehiago lortu ditu kiroldegia. Abonatuak igerilekura, gimnasia eta rokodromora sar daitezke urteko abonua ordainduta; eta gainontzeko ikastaro edo zerbitzuak merkeago eskuratu. Bazkideen artetik, %48,95 dira neskak eta %51,05 dira mutilak, umeak ere kontuan hartuta.

Bestalde, aipatzeko moduko datua da, baita ere, kiroldegiko ikastaroetan 223 herritarrek parte hartzen duela. Horien artean arrakasta handiena duen ikastaroa zumba da, arratsaldeetan itxaron zerrenda eta guzti duena. “Modak dira, spinning-a oso indartsu hasi zen orain 9 urte; jaitsi egin zen pare bat urte dela eta berriro ere indartu da. Pilatesak oso ondo funtzionatzen du. Bosuk ere bai, eta baita paddle-ak ere. Azken horrekin dagoen arazo bat da estali bakoia dela. Baina 2017an igarri dugu erabilera handiagoa”, dio Maria Gallastegik Udaleko kirol teknikariak.

Ikastaroetan gehienak dira neskak, zuzendutako jardueretan, %90-edo. Gimnasioan, mutilak ere ugari egoten dira. Igerilekuko ikastaroetan, berriz, batez beste 90 neska-mutiko ibiltzen dira urtero.

BPXPort enpresak kudeatzen du Soraluzeko udal kiroldegia 2010az geroztik, eta beste bi urterako esleipena lortu du, bi urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin. 10 bat langilek dihardute bertan lanean.



**KLB6**  
 Kalebarran 6  
 943 27 74 26  
 Multa-eta-maden  
 modagileta  
 f. 1000  
 Free Antena  
 Paga Jaurea  
**ISOLID**  
**VERO MODA**

**AURREZTU ENERGIA**  
 Berotu ura eguzki izpiekin  
 edo airearekin  
 fontanerria  
**Sancaldres**  
 iturgintza  
 639 179 696 • sancaldresiturgintza@gmail.com

*Jatearen plazerra, bertatik bertara*  
**Batzoki**  
 eguzki merka  
 antzaraketa  
 kama eta raiak  
 eguztekoak eta  
 lumbronek  
 enkargo bereziak  
 laster eta  
 lagun arako  
 hotzakak  
 Eremotik, 943 75 20 35

**TXURRUKA  
 JATETXEA**  
 Sukalde  
 tradizionala  
 Eguneko menua  
 Asteburuetako  
 menu berezia  
 Karta  
 www.txurruka.com  
 Tel.: 943 75 15 81

*sutarako egurra salgai*  
 pago-egurra, haritz-egurra...  
**SUMA**  
 basolanak  
 mug. 635 75 34 08

**ION MURGIZU BAKAIKOA  
 PINTOREA**  
 arnuta  
 dekoratiboa  
 industriala  
 Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

**MABEL  
 LEFAPAINDEGIA**  
 - Isarritzako keratina  
 tratamendua  
 - Depilazioa  
 - Re-sustrairik gabeko  
 permanentea  
 - Makilaja  
 - Manikura  
 erdizuntarra  
 - Solariuma  
 Errabal 1  
 Tel.: 943 75 14 09

**MENDIZABAL**  
 okindegia  
 Ogi - Prentsa - Gosariak  
 Astelehenetik  
 ostiralera:  
 08:00 - 13:00  
 17:00 - 20:00  
 Larunbatak eta  
 igandak  
 08:30 - 13:15  
 Kalebarran 10  
 Tel.: 943 75 13 99

**Hortz klinika**  
 Javier Alamo  
 Medik. Odontologiko  
 K.Z. 48.001.504  
 Kofia Gudiño  
 Odontologoa  
 K.Z. 48.001.548  
 27 urteko  
 esperientzia  
 birak gabeko anestesia,  
 odontologia orokorra,  
 griesa leku eta mugikorra,  
 odontopediara, ortodontia,  
 implantak, estetik...  
 Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

**TXURRUKA  
 JATETXEA**  
 Sukalde  
 tradizionala  
 Eguneko menua  
 Asteburuetako  
 menu berezia  
 Karta  
 www.txurruka.com  
 Tel.: 943 75 15 81

**Kontulan**  
 aholkularitza  
 ABOKATUAK  
 Errenta-iturperak - Administrazioa lanak  
 Trafikoa burokratza - Lan-arloko aholkularitza  
 Enpresen kontabilitate/auditazioak - Kontabilitateak  
 Santa Ana 13 - 1. eta. 20590 Sorluze  
 Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**ELIZPE  
 HORTZ KLINIKA**  
 Zure genak hartz klinika,  
 punta puntako teknologijekin lan  
 egiten dugu. Cad-Cam sistema  
 bertan bertan erabiltzen dugu.  
 Elizburu, 3 behea  
**SORALUCE**  
 Tel. 943 75 25 67  
 e-mail: elizpe@l@gmail.com  
 Ordutegia:  
 Astelehenetik ostiralera  
 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**IZAGUIRRE**  
 Igeltzeritza  
 Eraklin berriak - Kalitatezko emaitza  
 Erreforma - Era guztietako igeltzeritza  
 50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289

**Etxabe  
 Harategia**  
 • Etxera eramaten dira  
 • Enkarguak hartzen dira  
 • Sorluzeko baserrietako  
 produktuek  
 • Etxeko tripak eta txakurrak  
 Etxaburua 5  
 Txorrua, 943 75 23 75

Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**  
 ELECTRICIDAD

# Euskal Aratosteak, lehiaketa eta koreografia



Euskal Aratosteekin abiatuko da Aratusteetako aurtengo egitaraua, Plaentxi Herri Eskolako neska-mutikoak izango dira-eta mozorrotzen lehenak. Otsailaren 9an, barikua, eskolan argazkiak atera ondoren, 15:15ean irtengo dira kalejiran, kiroldegiraino. Han, 16:00etan irudikatuko dituzte Euskal Aratosteak, dantzak eginez, eta ondoren gurasoen eskutik txokolatada izango dute. Bukatzeko, 17:30ean dantzaldia izango da, Plaza Zaharrean. Eguraldiak eraginda aldaketarik balego, ohar bitartez jakinaraziko dute.

## Mozorro lehiaketa

Zapatuan, berriz, norberaren trebetasunaren esku izango da mozorrotzea. Hori bai, lehiaketan parte hartu nahi duenak *Itsasoa* gai modura baliatuta egindako mozorroa beharko du, ondoko baldintzak beteta: aurkeztu beharra dago taldeka eta argazkia atera, 13:00-21:00ak bitartean kontzejupean jarriko den photocall-ean. Argazki hori, izenarekin lagunduta, bidali behar da 605706086 whatsapp zenbakira. .

Epaimahaia Aratusteetako Batzordeak izendatutako hiru

lazko mozorro lehiaketako talde irabazlea.

personak osatuko dute.

Epaimahaiaren puntuazioak %60ko pisua izango du puntuazio orokorrean. Eta puntuazio hori osatuko da herritarrek *Plaentxia.eus* atarian emandako puntuekin. Azken horrek %40ko pisua izango du. *Plaentxia.eus*-en domekan, otsailaren 11n, zintzilikatuko dira argazkiak eta botoak eman ahalko dira astelehen gauerdia arte.

Sariak erabakitzeke kontuan hartuko da taldeak sortzen duen giroa, originaltasuna, janzkera, eszenografia eta lehiaketako gaiarekin duen lotura. Sariak, berriz, honakoak dira: 150 euro lehenari, 100 euro bigarrenari eta 50 euro hirugarrenari.

## Koreografia erakustaldia

Aratusteetako azkene hitzordua, berriz, Aratuste-martitzena da. Besteak beste, koreografia erakustaldia egingo dute bigarren urtez. 17:30ean hasiko da kiroldegian, eta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko neska-mutikoz osatutako sei taldek parte hartuko dute ikuskizunean. Gurasoen inplikazio handiarekin gauzatuko da ekimena, Udaleko Kultura Batzordearekin elkarlanean.

## Soraluzeko piano ikasleak Andoaingo jaialdira

Soraluzeko Musika Eskolako zazpi piano ikasle erakustaldia egingo dute Andoaingo Piano Jaialdian datorren otsailaren 24an eta 25ean, hango Bastero Kulturunean. Iaz parte hartu zuten lehen aldiz bi egunetako jaialdi horretan, eta aurten errepikatu egingo dute.


Hain zuzen ere, 8-17 urte bitarteko Soraluzeko ikasleak bertaratuko dira, bakoitzak pieza bana interpretatuz. Honako hauek, hain zuzen ere: Nagore Caballerok *Melodia* pieza interpretatuko du; Julen Calderonek, *GipsyCamp*; Miren Osinagak, *TheQueen's Minuet*; Iraultza Ostolozak, *Samoan FireDance*; Aby Montserratek, *Oinazez* pieza eta Julen Gabilondok *SophisticatedRag*. Ikasle horietatik bostek parte hartuko dute Andoaingo jaialdiko A mailan eta C mailan beste biek.

## Oñatin, prestaketa

Andoaingo jaialdirako prestaketa modura, baina, lehenago, otsailaren 5ean Oñatin beste kontzertu bat eskainiko dute Soraluzeko piano-jole gazteek, pieza berberak interpretatuz. Anabel Henao Soraluzeko Musika Eskolako piano irakasleak esplikaturako moduan, "Andoaingo jaialdirako aurre-kontzertu modura, prestaketa modura izango da Oñatiko; gazteek aukera izan dezaten jende askoren aurrean eta itsas-pianoan jotzeko. Ez daude-eta ohituta halako jaialdi handietara".



# Kilikilima



2017an hasi ziren batera lanean Idoia Cacho (Soraluze, 1965) eta Isabel Orozko (Eibar, 1963). Eskuz margotutako edo apaindutako altzariak zein bitxigintza alternatiboa lantzen dute, Kilikilima izenarekin, bakoitzak bere kabuz 20 urte baino gehiagoan artisautza lantzen ibili ondoren.

“Etxeko piezak eguneratzen ditugu; ez dugu ezer botatzen, gauza guztiak ematen dute bigarren aldiz erabiltzeko aukera. Helburua da gauzak aprobetxatzea, bereziki gauza sendoak eta balioa dutenak. Askok bota egiten dituzte gauza zahar baina onak, eta berriak erosi, sarri egurrezkoak ere ez direnak”, diote. “Etxeko altzari zaharrak berritzea eskaintzen dugu, margotuz. Eta altzarien barruan sar daitezke etxeko osagarriak, edo dekorazio produktuak”. Altzari bakoitzaren arabera aurrekontua egiten dute, “edozein poltsikoren neurrira”: “Kontuan hartu zeurea den altzari on bat margotu behar dugula, gaurkotutako itxura emanez. Bestela, gehiengoak norberak muntatzeko horietako altzari bat erosten du, ohiko sendoa botata”.

Txoko taberna barruko jangelako mahaiak dira egiten duten lanaren

adibide. “Dira lehengo mahaiak, grisez koloreztatuta. Izan ere, mahai haiek baliagarri zitzaizkien, tamainarengatik eta erabilerarengatik, baina ez zetozen bat oraingo dekorazioarekin. Grisez koloreztatu genituen, zoruaren kolorea bezala. Egin dugun azken lana da”.

Bitxigintza ere lantzen dute. “Guztia eskuz egiten dugu, piezak ere bai. Egiten dugu egunero erabiltzeko moduko bitxigintza, jubenila, eroso, eta batera garestia ez dena. Gure gustukoak dira egiten ditugun bitxi guztiak, bestela, ez ditugu egiten. Eta ez dute adinik, baliagarriak dira 16 urteko batendako, 30 urteko batendako eta baita 60 urteko batendako ere”. Lepokoak, pultserak, belarritakoak... denetik egiten dute. Esaterako, “Gabonetako opari izarra eskuz margotutako aterkiak izan dira”, diote.

Kilikilimak Soraluzen izan zuen estreinaldia, ekaineko azokan. Harrezkero ibili dira Elorrioko, Bergarako, Aretxabaletako, Soraluzeko... azoketan. Eta diotenez, “ahoz aho asko zabaltzen da” euren produktuen berri.

1. Idoia Cacho eta Isabel Orozko, hainbat artelanekin.
2. Kilikilima-ren belarritakoak.
3. Eskuz berritutako eta margotutako altzariak eta beste.
4. Belarritako txikiagoak.

**Kontakturako telefonoa:**  
645 00 80 70

# Javier Gonzalez

## Soraluzetik Bergarara



Ezusteko handiarekin hasi zuten urtea Javier Gonzalezek (Soraluze, 1985) eta Maitane Iñurrietak (Soraluze, 1986): lehen semea aurreikusitakoa baino egun bat lehenago munduratu izanagatik egunkari eta albistegietako albiste bilakatu ziren, 2018an jaio zen lehen gipuzkoarra izan zelako Danel Gonzalez Iñurrieta.

### Ederra buruhaustea, ezta?

Ba bai. Gurasoen etxean gosaltzen nengoela erizainek deitu zidaten esanez Noticiasetik, Diario Vascotik, ETBtik... deitzen zebiltzala. Ez dakit zela egingo duten, baina jakin zuten gurea izan zela jaio zen lehena!

### Ze ordutan jaio zen?

03:00-03:30ak aldera. Bazegoen tartearen besteren bat jaiotzeko, baina... Gainera, nire urtebetetze egunean, urtarillaren 2an zen berez jaiotzekoa, eta aurreratu egin zen. Horrela hobeto; horrela bakoitzak bere eguna izango dugu.

### Leku guztietan azaldu zen Danel Gonzalez Iñurrieta bergararra zela; baina apur bat Soraluzekoa izango da, ala?

Esan genien guztiei: behintzat argi eta garbi ipini Maitane eta neu Soraluzekoak garela. Sarri etortzen zarete?

## “Ogia aukeratzeko eskatu ziguten eta Mendizabalenekoa aukeratu genuen”

Ni bazkaltzera beti noa (orain gutxiago) gurasoen etxera. Bergaran bizi gara, baina bizitzaren zati handi bat Plazentzian egiten dugu.

Kuadrilla ere Plazentziakoa dugu.

### Eta zelatan joan zineten ba Bergarara bizi izatera?

Etxebizitza aukerengatik. Orain duguna gustatu zitzaigun, Maitaneren lanpostutik ere gertuago gaude... 2013ko Aste Santutik bizi gara Bergaran.

### Ze alde dago Bergararen eta Plazentziaren artean?

Bergara handiagoa da eta baditu abantailak. Baina Plazentziako giroa askotan faltan igartzen dugu.

### Danel besoetan ogia zuela munduratu zen, ezta?

Bai. Lehen gipuzkoarra izatearren bi ogi barra doan izango ditugu urte osoan. Okindegia aukeratzeko eskatu ziguten eta Mendizabalenekoa ogia aukeratu genuen. Izan ere, Plazentziakoa moduko ogirik ez dago!



1. Maitane Iñurrieta eta Javier Gonzalez Hegoafrikan.
2. Danel Gonzalez Iñurrieta amaren besoetan.
3. Umea jaioberritan Arrasateko ospitalean.



Oihana Uribe eta Ainhoa Ibarzabal Mapfreko langileak Kalebarreneko bulego berrian.

## “Hemendik aurrera bidaien gestio zerbitzua ere eskainiko dugu”

Zergatik erabaki duzue bulegoa Kalebarrenera aldatzea? Herritarrengandik gertuago egoteko. Kantuak be badiño “Kalebarren tiene cosas que no tiene el mundo entero”. Nahi dugu jendearengandik hurbil egotea. **Bulegoaz gain, berrikuntza gehiago ere badituzue, ezta?** Bai. Hemendik aurrera, aseguru eta etxebizitzaren bitartekaritza zerbitzuaz gain, bidaien gestiorako zerbitzua ere eskainiko dugu, batez ere, adineko jendearendako. Gainera, gure eskaintzen gaineko informazioa zabalduko dugu sare sozialetan, Facebooken. **Aseguruen merkatua asko aldatu da azkenengo urteetan?** Bai. Gaur egun lehia handia dago. Zorionez, momentu honetan Mapfre merkatuko enpresarik lehiakorrena da. Liderrak gara

### “Momentu honetan Mapfre merkatuko enpresarik lehiakorrena da”

aseguruen merkatuan. Jendeari esan nahi diogu etortzeko beldurrik gabe eta eskatzeko aurrekontuak. Bat baino gehiago harrituko da eskainiko dizkiogun baldintzekin. **Etxebizitzak saldu eta alokatzeko bitartekaritza ere eskaintzen duzue. Zela dago kontu hori Soraluzen?** Alokairuetan mugimendu handia dago. Ia astirik ere ez dugu izaten iragarkia ezartzeko. Bataz bestekoa 400-500 eurotan dago. Salmentak ere hasi dira igotzen, bankuak kredituak ematen hasi direnean.



## MAPFRE

**Aseguruak, etxebizitzaren alokairu eta erosketak, bidaiak\***

**Ordutegia:** Goizez: 9:30 – 13:30  
Arratsaldez: 16:00 - 19:00  
Kalebarren 3, behea.

\* (1) Era guztietako aseguruak bideratzen ditugu.  
(2) Herrian alokatzeko eta saltzeko dauden etxebizitzaren gaineko informazioa dugu.  
(3) Bidaiak bideratzen hasi gara, batez ere, jende nagusiarendako.





Xabier Zabala Zubi Nagusiari begira.

# Bakarkako diska intimoa

12 korte instrumentalez osatuta dago su-geldoan landutako *Brisa* diska. Azaroan kaleratu zuen Xabier Zabalak (Zarautz, 1967). Eta entzun dutenek diotenez, “disko lasaia eta erlaxagarria” da, “gustura entzuten dena”. “*Brisa* da oso intimoa, pertsonala”, dio, berriz, egileak.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA XABIER ZABALA TESTUA: UBANE MADERA

Izan ere, bere-berea duen lehen diska da hau; 20 urtean “besteentzat hainbeste lan” egiten ibili den sortzaileak, “etxean bakarrik geratzean inolako laneko premisa-presiorik gabe”, une horretan sentitzen duena, buruan duena adierazteko baliatu du; eta halako bizitza musikal oparoan bizitakoa eta landutakoa deskribatu eta transmititu gura duen lana kaleratu du Zabalak, new age estiloan, berezkoa duen hizkuntzarekin: musikarekin. Grabazioa bera ere erabat modu pertsonalean landu du, gainera: “Nola sortu da hau dena? Nire estudioan, neuk dena eginez eta grabatuz. Asmoa zen sortu zen moduan azaltzea. Prozesuaren hurrengo fasean, Victor Sanchezekin Donostiako Elkar estudioan egin nituen

nahasketak; eta masterizazioa Los Angelesen, After Hours estudioan egin dugu. Horrela sortu zen *Brisa*”, kontatu du hark. Diskoaz aparte, bideoklipa ere grabatu du: Itsasontzia, lehenago sortutako eta entzuleen artean arrakasta handia izan duen kantua oinarri duena. “Gauzak lehengo erara” egin nahian, gainera, *Brisa* diskoaren gizarteratzea faseka egingo du musikari zarautek: “Egin nahi izan dudana da lehendabizi diska atera, jendeak entzun eta barneratzeko denbora eman... eta geroago plataforma digitaletan sartuko dut, baina udaberri aldera. Azken fasea izango litzateke zuzenekoak egitea; hori izango da udazken aldera. Errekurtso teknologiko bisualak izango ditu, jendeak



1. Xabier Zabala "Brisa" diskoaren grabazioan.  
2. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin.



Duda barik, Xabier Zabalak sortutako doinurik ezagunena Pirritx eta Porrotxen *Maite Zaitut* da. Baina hori "gerizpean" lan egiten duen musika-egilearen sorkuntza oparoaren adibide nimiño bat besterik ez da.

### Zer da Pirritx eta Porrotx edo Reala modukoendako musika sortzea?

Nik egindako abestiak dira baina beste batzuk intepretatzen dituztenez, bigarren planoan zaude, eta oso eroso sentitzen naiz hor. Polita da pailazoan abesti batek horrelako bidea egitea; eta *Maite Zaitut* kantuaren kasuan, bidea ez zen izan irratitik herrira, baizik eta kontrako prozesua izan zen: herritik egin zen ezaguna. Polita da ikustea norberaren lana jendeak kantatu eta gozatu egiten duela... Edozein modutan, inportanteena da jakitea zertarako eta zeinentzat egiten ari zaren. Enpatizatzea. Adibidez, pailazoendako, abiapuntua umeak izanik ere, oso garbi nuen "produktuak" familiarra izan behar zuela; azken batean, gurasoek ere entzungo dituzte abestiak umeekin... Realarentzat eskatu zutenean kantu bat Anoetan jartzeko, prozesu hori berori egin nuen: irudikatu nuen Anoetan eserita nagoela eta pentsatu nuen zelako abestia gustatuko litzaidakeen niri entzutea Reala animatzeko.

### Egile moduan, zer sortzea duzu gustukoen?

Oso eroso sentitzen naiz lan oso ezberdinak eginez; baina azken boladan asko ari naiz idazten orkestra eta bandentzako. Oso gustura egin nuen, adibidez, Korrontzirentzat enkargua. Bilboko Aste Nagusian, egokitu nituen Korrontziren lanak Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin ere jotzeko, Guggenheimen aurrean.

### Zein da Soraluzerekin duzun harremana?

1988an hasi nintzen nire bikotearekin eta gaur egun nire emaztea da. Soraluzetarra da.

### Zela ikusten du zarauztar batek gure herria?

Oso kuriozosa da. Etorri nintzenez, errepideak ez ziren errepideak, oinezkoenak ziren, eta pentsatu ere ez bozina jotzerik!!! Kuriozosa da, baita ere, jendeak zela fitxatzen zaituen... eta gero etxeak! Alde batera etxe bat zen 3. pisua eta beste aldera 8. pisua, mendia zegoelako. Horrekin flipatu egiten nuen. Eta aldapak... Baina kristolako bizitza du eta kanpotik etorrita oso eroso sentitzen zara hemen. Oso giro ona dago.


## “Nola sortu da hau dena? Nire estudioan, neuk dena eginez eta grabatuz. Asmoa zen sortu zen moduan azaltzea”

musika entzun bitartean ikus dezan nondik nora doazen konposizio guztiak”, aurreratu du hark.

Hori guztia egingo du Xabier Zabalak epe motzera, bestelako lan askorekin tartekatuta; izan ere, urtez urte berarengana jotzen dute artista, talde, banda... ezagun ugarik musika enkarguak egiteko. “Epe motzera: bi diskarekin ari naiz batera: Pirritx eta Porrotxen diska berriarekin eta Korrontziren diska berriarekin. Eta bestelako lan askorekin ere bai: moldaketak, Alex Telloren korto batendako musika, arregloak Bilboko txistularien alarderako, Hernaniko Preludio kontzerturako zuzendaritza musikala, orkestrarako beste obra bat...”.

Guztiak ere erronka bezala hartzen ditu Xabier Zabalak, eta gustura asko egin: “Oso eroso sentitzen naiz gauza oso ezberdinak egiten. Sentitzen dut bizirik nagoela eta asko ikasten dudala... Denak dira erronkak bezala; oso polita da jende berria ezagutzea, gozatzea...”.

ZORION AGURRAK



**Alain López Pellitero**

Urtarrilaren 20an, 12 urte. Zorionak! Muxu eta besarkada asko zure familiaren partez!



**Ilyas Ouhammi Boussagui**

Urtarrilaren 12an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Malen, Joanes eta Aitor Ugalde**

Abenduaren 18an eta 19an, 9 eta 6 urte Zorionak hirukote! Plutoneraino eta bueltan maitxe zaituztegu! Muxu handi bana. Etxekoen partez.




**Ane eta Miren Lazkano eta Intza Baglietto**

Urtarrilaren 12an eta 18an, 20 eta 5 urte. Arizagako sorgintxuei matxe matxe potolo bat. Zorionak! Etxekoak.



**Andrea Olaizola**

Urtarrilaren 4an, 32 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Aetz Lasa**

Abenduaren 19an, 3 urte. Beti saltoka eta jolasten, zure kantuekin gu alaitzen. Bihotzez maite zaitugu!



**Galder eta Oihane Garmendia**

Urtarrilaren 2an, 4 urte. Zorionak bihotzak! Etxekoak.



**Julen Muñoz Mendo**

Urtarrilaren 22an, 5 urte. Asko maite zaitugu. Zure familiaren partetik: Sonia, Unai eta Paula.



**Nerea Atxotegi Goenaga**

Urtarrilaren 18an, 19 urte. Segi inguruko danon bizitzak alaitzen. Muxu bat. Etxekuen partez.



**Lander Rz de Luzuriaga Lamas**

Zorionak, Lander. Horrela segi beti, maitakorra eta alaia. Amaren, aitaren eta Enekoren partetik.



**Naroa eta Ander Agirregomezkorta**

Otsailak 8 eta 9an. 7 eta 5 urte. Zorionak eta patxo haundi bana etxekuen partez!!!!



**Enara Agirre, Amaia Agirre eta Unai Calles**

Urtarrilak 10 eta 22an eta otsailak 7an 35, 43 eta 9 urte. Etxekoen partez, zorionak!



**Asier Laskurain**

Urtarrilean 50 urte. Zorionak hire laguneren partez.

JAIOBERRIAK



**Imran Falak El Garnaoui**

Urtarrilaren 2an jaio zen.



**Liher Fernandez Roman**

Abenduaren 12an jaio zen.



**Naia Romero Lazkano**

Abenduaren 25ean jaio zen.



ESKELAK

I. URTEURRENA

**Miren Eguren Larreategi**



2017ko urtarrilaren 13an hil zen, 88 urte zituela.

Ezozin gora Arritxa,  
behixan larrian dabilta,  
tximiniaren ahotik doia  
erretako haritza.

Sustar sakonen emaitza,  
emon deskuzu bizitza,  
hamar adarren baitan biziko  
da orain zuhaitza.

*Etxekoak*

I. URTEURRENA

**Jose Ramon Larreategi**



2016ko abenduaren 13an hil zen, 64 urte zituela.

Zuk erakutsi bezala egingo dugu bizitzan aurrera.  
Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

*Ezoziko eta Mendotzko senideak*

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Jaiotakoak**

Imran Falak El Garnaoui

OHARRA

**1978ko kintada**

Maiatzak 26an bazkaria Txurruka  
Jatetxean. Animatu zaitezte!  
Harremanetarako telefonoa:  
690610694.

**SAGARDOPEGIRA IRTEERA**  
ARRATZAIN SAGARDOPEGIRA (USURBIL)



**Eguna** Martxoak 3  
**Ordua** 13:00etan Estaziotik  
Bueltarako ordua partaideen  
artean adostuko dugu  
**Txartelak erosteko**  
Iratxo gozotegian edo  
Pil-pileanen bulegoan  
**Txartelak erosteko epea**  
Otsailak 18

Antolatzailea:  
  
**PIL-PILEAN**

**Pil-pilean**  
**Euskaldunon Elkarte**  
**BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** Martxoak 3, zapatua.  
**Ordua:** 11:00-12:30  
**Lekua:** Antzokia  
**Gai zerrenda:**

- 2017ko balorazioa eta 2018rako proposamenak
- Diru kontuak (balantzea eta aurrekontua)
- Izena aldatzea

**OTSAILEAN ETXE  
GUZTIETAN**

**SORALUZEKO GIDA**  
MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GIDA

# 2018

[WWW.PLAENTXIA.EUS/GIDA](http://WWW.PLAENTXIA.EUS/GIDA)



**190 ENTITATE BAINO GEHIAGOREN DATUAK  
MERKATARIAK, ENPRESAK, ELKARTEAK, ARTISAUAK...  
URTEKO EKIMENEN EGUTEGIA  
GOARDIAKO FARMAZIAK**

Argitaratzailea:



**SORALUZEKO  
UDALA**